

## **OSASUN DEPARTAMENTUAREN PROZEDURA, IKASTETXEETAN IKASLEEN COVID-19AREN KASUAK KUDEATZEKO**

2021eko irailaren 24a

**Dokumentu honek erreferentziatzen hartzen du Osasun Ministerioaren "Ikastetxeetan COVID-19aren kasuak agertzen direnean jarduteko gida" dokumentua (2020/09/07)<sup>1</sup>, eta Osasun Departamentuko COVID-19aren Jarraipen Batzordeak onetsi du.**

Protokolo hori etengabe berrikusten ari da, koronabirus berriak (SARS-CoV-2) eragindako infekzioaren bilakaeraren eta informazio berriaren arabera.

### **IKASTETXEKO IKASLE ETA LANGILEEN COVID-19AREN KASUEN KUDEAKETA**

#### **1. Ez dute ikastetxera joan behar baldintza hauetakoren bat betetzen badute:**

- PCR baten edo beste proba diagnostiko molekular baten emaitzaren zain dago.
- Bakartuta dago, PCR edo antigeno bidez diagnostikatutako koronabirusaren infekzioa duelako.
- Berrogeialdian dago, COVID-19aren kasu baieztatu baten kontaktu estua delako.
- 12 urtetik beherako haurrak badira eta haien bizikide bat esperoan badago PCRa edo antigenoaren proba bat egiteko, COVID-19arekin bateragarria den klinika izateagatik.
- **Koronabirusak eragindako infekzioarekin bateragarriak diren sintomak ditu:**
  - Kasu horretan, adinaren arabera, senideak edo tutoreak edo adingabea bera jarriko dira harremanetan osasun etxearekin, edo Osasun Aholkuak Jasotzeko Zerbitzuaren erreferentziako telefonora deituko dute (948 290 290), kasua azter dezan, PCRaren edo antigenoaren eskaera erabaki eta, hala badagokio, etxeko bakartzea ezar dezan, emaitza jakin arte. Sintoma larririk badu, 112 zenbakira deitu behar da.
  - PCRa edo antigenoaren proba 24 orduko epean egingen da, gutxi gorabehera.
  - Kasu positiboa dela baieztatzen bada, bakartzearekin jarraituko da eta osasun etxeko medikuak/erizainak kasuaren jarraipena egingen du.

<sup>1</sup>[https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Guia\\_actuacion\\_c entros\\_educativos.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Guia_actuacion_c entros_educativos.pdf)

<sup>3</sup> Gaur egun, proba hauek daude: infekzio aktiboa detektatzeko bi proba, antigenoak detektatzeko proba azkar bat, eta RT-PCR edo teknika molekular baliokide baten bidez RNA birala detektatzeko proba. Bata edo bestea egitea erabakiko da, proba egin beharreko eremuaren, erabilgarritasunaren eta sintomen eboluzio egunen arabera.

## 2. Definizioa.

- **Kasu susmagarria:** ikastetxeko edozein langile edo ikasle, koadro kliniko hau duena: arnas infekzio akutua (handia), bat-batean agertua, edozein larritasunetakoa eta eragiten diona, besteak beste, sukarra, eztula edo aire-falta. Beste sintoma batzuk ere, hala nola eztarriko mina, usaimenaren edo dastamenaren galera, giharretako mina, sintoma gastrointestinalak, sudurreko jariakina edo sudurreko kongestioa (oro har, taldekatuta), toraxeko mina edo buruko mina, besteak beste, SARS-CoV-2 bidezko infekzioaren susmoaren sintomatizat har daitezke, irizpide klinikoaren arabera. Haurren artean sudurreko jariakina edo kongestioa modu isolatuan agertzeak, batez ere luzaroan bada, printzipioz ez dakar proba diagnostikoa egin beharrik, irizpide klinikoak eta epidemiologikoak besterik adierazi ezean.
- **Baieztatutako kasua, infekzio aktiboarekin**
  - Kasu susmagarriaren irizpide klinikoak betetzen duen pertsona, eta PCR edo antigeno positiboa duena.
- **Kontaktu estua:**
  - Baldin baieztatutako kasua bizikidetza-talde egonkor batekoa (BTE) bada: kontaktu estuzat hartuko dira taldeko pertsona guztiak. Irizpide hau Haur eta Lehen Hezkuntzan aplikatuko da.
  - Baldin baieztatutako kasua BTE gisa antolatua ez dagoen gela batekoa bada: kontaktu estuzat hartuko da edozein ikasle, baieztatutako kasuarengandik <2 metroko distantziara egon dena 15 minutuz baino gehiagoz maskara erabili gabe.
  - Baieztatutako kasuekin bizi direnak.
  - Ikastetxeko edozein profesional, irakasle zein bestelako langile, baieztatutako kasuarengandik <2 metroko distantziara egon dena 15 minutuz baino gehiagoz maskararen erabilera egokia egin gabe.
  - Aldi hau hartuko da kontuan: hasi kasuak sintomak izan baino 2 egun lehenagotik eta kasua bakartzen den unera arte. PCR bidez baieztatzen diren kasu asintomatikoei dagokienez, diagnostikoa egiteko lagina hartu aurreko 2 egunetan izandako kontaktuak bilatuko dira.

## Kasuen kudeaketa

Ikastetxean, eta gaur egungo testuinguruan, kasuen detekzio goiztiarra eta haien bakartzea, bai eta kontaktu estuena ere, segurtasun-inguruneari eusteko eta hezkuntza- eta pedagogia-helburuak lortzeko neurririk garrantzitsuenetakoa da.

### **Ikasle batek ikastetxean COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak baditu:**

- Maskara kirurgiko bat emanen zaio ikasleari (2 urtetik gorakoa bada), eta beste bat gurasoak edo tutoreak iritsi arte hura zainduko duen helduari.
- Ikasleak ezin badu maskara kirurgikorik jarri, helduak jarri beharko ditu FFP2 maskara, balbularik gabekoa, aurpegiko pantaila eta behin erabiltzeko mantala.
- Ikasle hori eraman behar da alde zuzenetik aukeratutako banakako erabilerako gela batera; aireztatapen egokia izan behar du, eta pedala duen zakarrontzia, horra botatzeko maskara eta behin erabiltzeko zapiak.
- Familiakoei edo legezko tutoreei abisua emanen zaie, ikastetxera etor daitezten eta ikaslea etxera eraman dezaten. Jakinaraziko zaie harremanetan jarri behar dutela bere osasun etxearekin, edo Osasun Aholkuak Jasotzeko Zerbitzuaren erreferentziako telefonora deitu behar dutela (948 290 290), kasua azter dezan, PCRaren edo antigenoaren eskaera erabaki eta, hala badagokio, etxeko bakartzea ezar dezan, emaitza jakin arte. Sintoma larririk badu, 112 zenbakira deitu behar da.
- PCRa edo antigenoaren proba 24 orduko epean egingen da.
- Kasu positiboa dela baieztatzen bada, bakartzearekin jarraituko da eta osasun etxeko medikuak/erizainak kasuaren jarraipena egingen du.

### **3. Ikastetxeko ikasleen kontaktu estuen kudeaketa**

Ez da ezarriko eskolako kontaktu estuen berrogeialdirik, probaren emaitza positiboa dela jakin eta infekzioa baieztatu arte.

**Ikaslea baieztatutako kasua bada, infekzio aktiboa badu eta aipatutako aldiak betetzen baditu eskolara bertaratu zen azken egunetik zenbatuta, Osasun Publikotik eta Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kontaktuen Kudeaketa Zerbitzuaren bidez:**

- Kontaktua estutzat hartutako ikasleei berrogeialdia egiteko aginduko zaie baieztatutako kasu batekin azken kontaktua izan eta hurrengo 10 egunetan.
- Berrogeialdian dauden geletan, berrogeialdiaren hasieran PCR bat egingen zaie eskolako kontaktuei. Lehen proba horren emaitzaren arabera:
  - PCR negatiboa: SMS bidez iritsiko zaio emaitza. Berrogeialdian jarraitu beharko du.
  - PCR positiboa: baieztatutako kasutzat hartuko da. Osasun etxean arduratuko dira kasuaren jarraipena egiteaz.

- Berrogeialdian zehar COVID-19arekin bat egiten duten sintomak izaten hasiz gero: profesional baten balorazioa eskatu beharko dute osasun etxean; edo, osasun etxearen ordutegitik kanpo, Osasun Aholkua Jasotzeko Zerbitzuari deitu behar diote (948 290290).
- Hamargarren egunean bigarren PCR bat eginen zaie lehen PCRan negatibo eman eta berrogeialdian segitzen dutenei, baieztatutako kasuarekin izandako azken kontaktutik kontaktzen hasita. Bigarren PCR proba horren emaitzaren arabera:
  - PCR negatiboa bada, berrogeialdia bukatu eta ikastetxera itzuliko da.
  - PCR positiboa: Baieztatutako kasu asintomatiko bihurtzen da. Osasun etxean arduratuko dira kasuaren jarraipena egiteaz.
- Berrogeialdia egiteko agindua jaso duten kontaktu estuek PCRa egiteari uko egin ez gero, kontaktu estuek 14 eguneko berrogeialdia eginen dute, baieztatutako kasuarekin izandako azken kontaktutik kontaktzen hasita, eta aldi hori amaitu arte ezin izanen dira ikastetxera itzuli.
- Txertaketa pauta osoa izateagatik edo aurreko 6 hilabeteetan infekzio egiaztatua izateagatik berrogeialditik salbuetsita dauden kontaktu estuei dagokienez:
  - Hasieran PCR bat eginen da, eta beste bat baieztatutako kasuarekin azken kontaktua izan eta 7 egunera.
  - Ikastetxera joaten jarrai dezakete.
  - Interakzio sozialetan maskara kirurgikoa erabiltzeko aginduko zaie, baita ekitaldietara ez joateko eta kontaktuak ikastetxean beraiekin elkarreragin ohi dutenengana mugatzeko ere. Sintoma bateragarriak agertzen ote diren zaindu beharko dute.

#### **4. Kontaktuak kudeatzeko ohar bereziak**

##### **Berrogeialditik salbuetsita egonen dira:**

- Kontaktu estuak, txertaketa pauta osoa hartu badute eta/edo PCR edo antigeno bidez baieztatutako SARS-CoV-2 infekzioa izan badute kasu positiboarekin azken kontaktua izan aurreko 180 eguneko aldian.
- Lehen Hezkuntzako BTE<sup>4</sup> berekoak diren eta zaugarritasun kliniko berezirik ez duten kontaktu estuak. Egoera horretan, kasua detektatzean PCR bat eginen da, eta beste bat 7 egunera. Proba horien ondorioz BTE berean infekzio aktiboa duen beste kasu positibo bat agertzen bada, berrogeialdia egiteko aginduko zaio BTE osoari.
- Kasu horietan, gomendatuko da pertsona kalteberekinekin kontakturik ez izatea, prebentzio neurriak indartzea eta sintoma bateragarriak agertzen ote den zaintzea.

<sup>4</sup> Bigarren une batean baloratuko da neurri hori Haur Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko BTE-etara hedatzea.

## **5. Baieztatutako kasu bat ikastetxera itzultzea**

Prozesu arina izaten ari diren eta ospitaleratzeko irizpiderik izan ez duten ikasleak bakartuak egonen dira gutxienez 10 egunez eta ikastetxera itzuliko dira, baldin eta 3 egun badaramatzate sintomarik gabe. Osasun etxeko profesionalek jarraipena egin, eta alta aginduko dute. Ez da beharrezkoa kontroleko PCR proba bat egitea, ezta txostena ere, ikastetxera itzultzeko.

### **IKASTETXEKO IRAKASLEEN ETA IRAKASLE EZ DIREN LANGILEEN KASUAK KUDEATZEA**

Kasu horien kudeaketa ikasleenaren antzekoa da. Jakinarazi behar zaio Laneko Arriskuei Aurrea hartzeko Zerbitzuari. kontaktu estuen agerpena minimizatuko da, prebentzio-neurrien bidez: 2 metroko distantzia gordez, maskara erabiliz eta espazioak aireztatuz.